

EROSKI-K BESTE SUPERMERKATU BAT INAUGURATU DU SANTURTZIN

- Saltoki berriak elikagai freskoetan espezialista den gama bat eskaintzen du, eta tokiko produktuen alde egiten du
- 890 metro koadrotik gorako salmenta aretoa du, eta 30 langile ditu
- EROSKI 156 janari saltoki ditu eta, salmenta aretoen azalera guztiak batuta, 150.000 metro koadrotik gora egiten dute

Santurtzi, 2022ko abenduaren 1a.- [EROSKI](#)k supermerkatu bat ireki du Mamariga kaleko 22.ean, Santurtzin (Bizkaia). Denda berriak EROSKI/City du izena, eta 890 metro koadrotik gorako salmenta aretoa du. 30 langile arituko dira, formakuntza jaso dutenak freskoen atalean espezializatzeko eta bezeroei arretarik onena eta erantzunak eskaintzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarririk behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere, zeinak Bizkaian 634.400 bazkide baino gehiago baititu.

Tokian tokiko produktuek garrantzi handia

"Santurtzin ireki dugun denda berri honek tokiko produktu ugari izango ditu. Ez bakarrik gure nortasuna erakunde gisa hori delako, baizik eta baita gure bezeroentzat erakargarri garrantzitsua delako ere", esan du EROSKI iparraldean dituen Supermerkatuen zuzendariak, Ismene Fulgenciok. EAEn nekazaritzako elikagaien arloko 300 ekoizle txiki ingururekin aritzen da EROSKI; alde horretatik, haien produktuek leku nabarmenduak dituzte haren dendetan, batez ere sasoian sasoiko frutek, berdurek eta barazkiek. EROSKIren politika komertzialak ahal den gehiena indartzen ditu tokiko ekonomiak, ingurunean aberastasuna sortzeko eta nekazaritzako elikagaiak, gizartea eta ekonomia garatzen laguntzeko. Eredu horrek oso dibertsifikatuta dagoen tokiko nekazaritza-ehuna bultzatzen du, zeina giltzarria baita sektorearen iraunkortasunerako.

Produktu dietetikoek eta biologikoek ere beren tokia dute supermerkatu berrian, elikagai joera berri guztiak biltzen dituzten gunek baititu. Gainera, atal horretan, produktu espezifiko sorta zabal bat dago, elikagai intolerantziak dituztenentzat (glutena, laktosa...) eta gantz, azukre eta gantz gutxi jan behar dutenentzat.

EROSKI 156 janari saltoki ditu Bizkaian, eta, salmenta aretoen azalera guztiak batuta, 150.000 metro koadrotik gora egiten dute.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Eraginkorragoa eta iraunkorragoa

Ingurumen aldetik iraunkorragoa den saltokia da. Denda eredu berri horrek hobekuntzak dakartza klimatizazioan, hozte industrialaren sorkuntzan eta argiztapenean. Hala, berrikuntzetako batzuk baino ez dira gutxiago kutsatzen duten hozkailu eraginkorrak, hozte altzariak ixteko modua eta LED argiaren erabilera, zeinek modua ematen baitute saltokiak ingurumenean eragiten duen inpaktua gutxitzeko eta bezeroentzat argi eta tenperatura atseginagoak lortzeko. EROSKIren belaunaldi berriko dendak dagoeneko sare osoko %70 baino gehiago dira; ekoeraginkorrak dira, eta energia aldetik zenbait neurri dakartzate %35 gutxiago ere murrizten dutenak ohiko supermerkatu baten energia kontsumoa.

Janari banatzaileetan lehena EAEn

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra EAeko elikagaien banaketan. Lurrealde horretako 9.000 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta 1.700 euskal hornitzaileekin lankidetzan dihardu, haiei 770 milioi eurotik gorako erosketa eginez urtero.

Euskal Autonomia Erkidegoan 412 saltoki ditu guztira, hala nola supermerkatu eta hipermerkatu propioak nahiz frankizia erakoak, cash & carry-ak, gasolindegia, optikak eta [Forum Sport](#) dendak eta [Dooers](#) dendak, bai eta [on line](#) supermerkatua ere. EROSKI club-en fidelizazio programak milioi bat Bazkide Bezero inguru ditu autonomia erkidego honetan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel.: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)